BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2016/10/20

# Bizkaiak Portuen eta itsasoko garraioaren gaineko Legea egituratzea eskatu deutso Eusko Legebiltzarrari

Bizkaiko Batzar Nagusiek aho batez erabagi dabe gaur, "ahal dan adostasun handienagaz eta epe laburrenean", "titulartasun autonomoko instalazinoen errealidadeari legezko euskarria emoteko balioko dauen" portuen eta itsasoko garraioaren gaineko legea onetsi daiela eskatzea Eusko Legebiltzarreko taldeei. Ekimenak Bizkaiko Batzarretako talde guztien sinadurea eroan dau, PPrena izan ezik, baina talde horrek be bat egin dau arauz besteko proposamenagaz.

Horrez gain, Bizkaiko Batzarrek eskaria egin deutsie Eusko Jaurlaritzari, egindako azterlanetan eta indarrean dagozan plan estrategikoetan oinarrituta, titulartasun autonomoko portuek "Bizkaiko ekonomia eta lurralde garapenerako erreferente izaten jarraitu daien". Hori dala eta, Bizkaiko Batzarretako sei taldeek, kofradiakaz eta sektoreko eragileakaz alkarlanean, "portu bakotxaren garapen egokirako egin behar diran hobekuntzak" identifiketan eta bultzatzen jarraitzea eskatu dabe, topaketarako mahaiak eta guneak sortuz, beharrezkoak badira, diseinau diran helburuak lortu ahal izateko.

Bizkaiko Batzarrek onetsi daben arauz besteko proposamena, aurreko legealdian, Euskadiko Portuen eta Itsasoko Garraioaren Lege proiektua baztertu eta bost hilebetera heldu da. Proiektu harek, Bizkaiko eta Gipuzkoako portuetako instalazinoen kudeaketarako zuzenbide pribaduko erakunde publikoa sortzea aurreikusten eban, Bilboko eta Pasaiako portuetakoak izan ezik, horreen titulartasuna estaduarena dalako. Bizkaiko kasuan, egin daikean portu legearen aplikazino eremuak Ondarroako, Lekeitioko, Eako, Elantxobeko, Mundakako, Bermeoko, Armintzako eta Plentziako instalazinoak hartuko leukez, Bizkaiko Batzar Nagusietako Ekonomia eta Ogasuneko batzordean gogoratu danez.

## HIPOTEKA MAILEGUEN ERREFERENTZIAZKO INDIZEA

Saio berean, eta adostasun handiagoa lortzeko asmoz, Batzarretako Podemos Bizkaia taldeak azkenean ez dau aurkeztu EH Bilduren zuzenketa-eskea jaso eban arauz besteko proposamena. Proposamen horretan, beste gauza batzuen artean, Espainiako Gobernuak Hipoteka Maileguen Erreferentzia Indizea (IRPH) indarbakotzea eskatzen zan. Hipoteka maileguetarako tasa ofizial horrek une honetan "milioi bat familia baino gehiagorengan" dauka eragina Espainiako estaduan.

Batzarretako talde guztiek kritikau dabe indize hori indarrean egotea, eta kentzearen alde agertu dira, baina adostasun handia lortuko dauen testu alternatiboa bilatuz. Batzordean gogoratu danez, Europar Batasunak berak, 2009an, IRPH deritxonaren moeta guztiak, finantza erakundeek kontrolautakoak eta, teorian, Espainiako Bankuak zaindutakoak, "susmagarriak eta oso errez manipuletako modukoak" zirala adierazo eban. Hori dala eta, Europak be eskaria egin eutsan Espainiako Gobernuari, indize hori baliobakotzeko.

## KATASTROAREN GAINEKO INFORMAZINOA

EH Bilduk, Aldundiaren webgunean martxan jarri dan Katastro-balio barriak jakinarazoteko prozedura telematikoak irisgarritasun unibersal printzipioa bete daian Aldundiak hartuko dituan neurrien gainean galdetuta, bere sailak, daborduko iragarri diran komunikazinorako hiru bideak erabilten jarraituko dauela iragarri dau José María Iruarrizaga Ogasun eta Finantzetako diputatuak. Bide horreek, informazinoa jaube guztiengana helduko dala “bermatuko” dabe. Bide horreek, bide telematikoa, Bizkaian banatuta dagozan 13 bulegoetara (Ogasuneko hiruak eta Balmasedan, Basaurin, Durangon, Gernikan, Getxon, Igorren, Markinan, Mungian, Barakaldon eta Portugaleten dagozan beste hamarrak) zuzenean joatea, eta, azkenik, lehenengo bietako bat be erabili ez daben pertsona guztiei posta ziurtatuz jakinarazotea, izango litzatekez.

NOTA DE PRENSA
20/10/2016

# Bizkaia insta al Parlamento vasco a articular una Ley de puertos y transporte marítimo

Las Juntas Generales de Bizkaia han acordado hoy por unanimidad pedir a los grupos del Parlamento vasco que aprueben, con el "mayor consenso y en el plazo más breve posible", una ley de puertos y transporte marítimo, "que sirva para mejorar y dar soporte legal a la realidad de las instalaciones de titularidad autónoma". La iniciativa llevaba la firma de todos los grupos junteros de la Cámara vizcaína, excepto la del PP, que se ha unido también a la proposición no de norma.

Asimismo, el Parlamento de Bizkaia insta al Gobierno Vasco, en razón de los estudios realizados y los planes estratégicos vigentes, a que los puertos de titularidad autónoma, "sigan siendo referentes para el desarrollo económico y territorial de Bizkaia". Por ello, los seis grupos de la Cámara vizcaína piden que se sigan identificando e impulsando, en colaboración con las cofradías y los agentes del sector, "las mejoras necesarias para el desarrollo oportuno de cada puerto", generando mesas y espacios de encuentro, si lo consideran necesario, para alcanzar los objetivos diseñados.

La proposición no de norma acordada en el Parlamento vizcaíno llega cinco meses después de que, en la legislatura pasada, el Gobierno vasco retirara el proyecto de Ley de Puertos y Transporte Marítimo del País Vasco que prevía la creación de un nuevo ente público de derecho privado para gestionar las instalaciones portuarias de Bizkaia y Gipuzkoa, excepto las de Bilbao y Pasaia, que son de titularidad estatal. En el caso de Bizkaia, el ámbito de aplicación de una futura ley de puertos alcanzaría las instalaciones de Ondarroa, Lekeitio, Ea, Elantxobe, Mundaka, Bermeo, Armintza y Plentzia, según han recordado en la comisión de Economía y Hacienda de las Juntas Generales de Bizkaia.

## ÍNDICE DE REFERENCIA DE PRÉSTAMOS HIPOTECARIOS

En la misma sesión, y en aras a conseguir un mayor consenso, el grupo juntero Podemos Bizkaia ha retirado una proposición no de norma, que había sido enmendada por EH Bildu, en la que se pedía, entre otras cuestiones, que el Gobierno español derogase el Índice de Referencia de Préstamos Hipotecarios (IRPH), un tipo oficial para préstamos hipotecarios que actualmente afecta "a más de un millón de familias" en el Estado español.

Todos los grupos junteros han criticado la existencia de tal índice y se han postulado por eliminarlo, aunque buscando un texto alternativo que conscite un amplio consenso. Como han recordado en la comisión, la propia Unión Europea, en 2009, consideró que los IRPH en sus diferentes tipos, controlados por las entidades financieras y teóricamente vigilados por el Banco de España, eran "sospechosos y fácilmente manipulables". Por este motivo Europa instó también al Gobierno español a suprimirlos.

## INFORMACIÓN SOBRE EL CATASTRO

Preguntado por EH Bildu por las medidas que la Diputación iba a adoptar para que el procedimiento telemático de comunicación de los nuevos valores catastrales puesto en marcha en la página web foral cumpla con el principio de accesibilidad universal, el diputado de Hacienda y Finanzas, José María Iruarrizaga, ha ratificado que su departamento seguirá utilizando las tres vías de comunicación ya anunciadas, que “garantizarán” que la información llegue a todos los propietarios. Estos son la vía telemática, la personación a través de 13 oficinas repartidas por Bizkaia (las tres de Hacienda y otras diez en Balmaseda, Basauri, Durango, Gernika, Getxo, Igorre, Markina, Mungia, Barakaldo y Portugalete) y, por último, la notificación vía correo certificado a todos los que no hubieran utilizado las dos primeras.